



IRRATI-IDAZKETA

Irrati-testua: entzuteko idazkera



IRRATI-MEZUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK



Noranzko bakarreko komunikazioa (esataritik entzuleengana?)


Bat-bateko komunikazioa (zuzeneko emanaldia)

Entzumenari soilik zuzenduta (haizeak daramatza ahozko hitzak...)


Unibertsala: entzuleri heterogeneoari zuzenduta

Malgua: gertaeren arabera, alda daitekeena

Bateragarria beste ekintza batzuekin (beste zerbait egiten dudan bitartean, entzuten dugu...)



Irrati-diskurtsoaren ezaugarriak



Erredundantea: noizbehinka errepikatu edo/eta laburbildu behar ditu esatariak esandakoa

Datu berriak eman ahala, **esandakoa gogoratu** (badaude azken unean kokatzen diren entzuleak)

Izenordainak eta **sinonimoak** baztertu nahasgarriak direnean


Hitz/kontzeptu ezezagunak sartzen direnean: azaldu edo sinonimo bat eman

HIZKUNTZA **MINTZATUA:** esateko idatzi

TESTU OZENA: entzun eta uler dadin



Irrati-idazketa: esateko idazkera



Euskara ona: arauen araberakoa

Euskara zuzena: euskal senaren arabera

Euskara egokia: komunikazio-egoerarekin bat datorrena

- ✓ Ahozko komunikazioa
- ✓ Genero eta taxuera ezberdinak: informazioa, entretenimendua, fikzioa, iritzia...



Irrati-idazketa: esateko idazkera

- Esaldi laburrak, luzeak baino hobeto
- Estilo zuzena
 - Esaldi inbertsonalak baino hobeto, pertsonalak
 - Perifrasien ordeez, dagokion aditza erabili
 - Aditz aktiboa, pasiboa baino hobeto
 - Itzulingurik ez
 - Nominalizazioak edo izen-egitura nominalizatuak saihestu
 - Ezezko esaldi gutxi
- Zehaztasuna eta ulergarritasuna datuen tratamenduan
- Hitz abstraktuak baino hobeto, berba zehatzak
- Esaldi eginak, komodina keta klixeak saihestu

